



**2022an hondakinen
%87a bildu zen
gaika bereizita**

**Igande honetan,
'Yuku eta Himalaiako
lorea' gaztetxoentzako
filma Sutezin**

Argazkia: Gilles Lambert, Unsplash



Miren Ros hezitzailea:
**“Pantailek eragin itzela dute gugan
eta menpekotasun handia sortzen dute”**

MARTXOAK 19, IGANDEA

20
URTE

18:30 SUTEGIN

Laburbira

Euskarazko film laburren XX.zirkuitoa - 2023

SARRERA DOAN



OLATUEN ISILTASUNA



MUSKIL



KOADRO GORIARI HELDU



IRRITS



ASKO FALTA DA?



ERLOJUPEKOA



HITZAK



noqua

ARATZ

zabaleta anaiak

1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

Albisteak iruditan

Enpresetan berdintasuna lortzeko urratsak

Joan zen asteazkenean Beterri Saretuz ekimenak "Berdintasuna enpresan" izeneko formazio saioa egin zuen Hernanin, kooperatiba, erakunde eta proiektuei zuzenduta, Berdintasun Planen inguruko informazioa jaso eta gai hori lanean nola jorratzen den hausnartzeko. Formazio saio hau Beterri Saretuz ekimenean izango diren hiru formazioetan bigarrena izan zen.

Hainbat enpresa eta erakundetako kideak izan ziren bertan. Elhuyar Fundazioko Joana Regueirot Berdintasun Planen inguruko informazio teknikoa eskaini zuen, eta besteak beste, araudi berriak dakartzan aukerak eta dituen zenbait hutsune azpimarratu zituen. Haren ustez aukera bikaina da kontzientzia irabazteko: "Berdintasun Planek arlo hori modu kontzientean eta planifikatuan lantzeko aukera ematen dute".



"Berdintasuna enpresan" izeneko formazio saioa egiten ari dira asteotan Beterri Buruntza eskualdean.

Hiruki Larroxa kooperatibako Ibai Fresnedok hausnarketarako bidea ireki zuen formazio saioaren bigarren zatian. Berdintasunaren eta parekidetasunaren artean dagoen diferentziaz aritu zen, eta

berdintasunaren gaia ikuspegi intersektional batetik landu beharraz, feministik egin izan den moduan: "Berdintasuna unibertsala den heinean, ezin gara geratu generoarekin bakarrik".

Laburrean

Odol-ematea

Datorren astelehenean, martxoaren 6an, 16:30-20:30 artean Udaregi ikastolako erdiko aretoan. Gogoan izan; aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

Oriako Traineru Jaitsiera

Datorren martxoaren 11rako antolatuta dute, 17:00-18:30 artean. Ohi bezala, Orian barrena jokatu den probak Euskal Herriko nahiz, besteak beste, Mediterraneo aldeko taldeak batuko ditu. Aginagako Mapil eta Sarikola Oriorekin lotuko ditu hitzorduak.

Soinurbil hemen da

Musika astea ez, hamabostaldia antolatuta du Zumartek estreinatu berri dugun hilabete honetarako. 19. edizioak ohi baino iraupen luzeagoa izango du, beraz; martxoaren 16an hasi eta 28an amaituko da. Xehetasun gehiago, datorren aldizkarian.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Ugaitz Agirre

Nitaz idatziko duzula?, pentsatu dut nire baitarako. Berokian ondo bilduta, begirasuna denborak nostalgiaraino higitutako paisaietan iltzatuta jarraitu dut. Kantu bat egongo da hor nonbait halakorik adierazten duena, ze irrati kateko azken booma isilik hobe legoke. A, zerbait erantzutea nahi duela? Ea, nitaz idatziko duela, ba...

Uste duzu nitaz edozer dakizula larrutan egin dugulako?

Igual pasa egin naiz? Denbora gehiegi pasa dut zure umore absurdoarekin. Begiak ixten zaizkit eta orduan indartsuago jotzen du zentzugabeak. Zigarreta bat egin dut esnatze aldera, eta piztu orduko zabaldu duzu auto matxuratu honen leihoa. Are hobeto jarri dut beroki gorria, eta bufandarekin kokotsa ere estali dut. Zigarroak, baina, ez du deus berotzen, eta hotz sentsazio hau gainetik kentzeko desiratzen nago. Hara! Atsedenenleku bat bost kilometro eskasera. Hatz erakuslearekin zerbitzugunerako irteera erakusten duen kartela erakutsi dizut, keinukariarekin eskuinetara eta esku fre-noari gora.

Hotza egiten du negu gorri luze honetan, *cullons!* Besotik heldu zaitut eta zerbitzugunean estu-estu sartu gara.

Biharrrak inoiz ez daki (6)



"Hara! Atsedenenleku bat bost kilometro eskasera. Hatz erakuslearekin zerbitzugunerako irteera erakusten duen kartela erakutsi dizut".

UGAITZ AGIRRE

"Behin bakarrik bizi gara eta gozatu behar da. Agian, horregatik halako goxotasuna sentitu nuen zure eskuekin nireak bildu zenituen hiri-autobus hartan"

Barruko berogailuak ia arropa guztia erantzera behartu gaitu gero. Ez harritu bihar eztulka hasi eta etzi sekulako sukarra izatea ere. Eguraldi aldrebesa jendarte aldrebes batentzat.

Nola ez, zuk kafea eta nik txokolate beroa eskatu dut. Mahaiaren bueltan jarri eta eskuak nork hotzagoak izan jolasten hasi gara bata bestearenak berotzeko ariketan. Eta soa begiradan harrapatuta, hitzak soberan daudenetan bezala.

Lehen enkontruan ere mutu geratu zinen. Besarkada estu bat, hori egiteko desiratzen

baikinen biok ala biok, eta jaitsi berri nintzen autobusera igo ginen metropolira hurbiltzeko.

Bost gidariak zer pentsatzen zuen, bost zigun bezala aurreko bikotearen iritziak, hegaldi-laguntzailearen usteak eta agurearen susmoak. Horrek guztiak axola beharko baligu, besteen esanetara biziko ginatkeen bi ginatke. Eta ez. Behin bakarrik bizi gara eta gozatu behar da. Agian, horregatik halako goxotasuna sentitu nuen zure eskuekin nireak bildu zenituen hiri-autobus hartan.

Eskuak. Gure heldulekurik behinenak beharbada? Birtartean, heldu eskutik zioen poetak. Zuk halako esaldirik egin gabe heltzen zenidan, edota eskuek elkar jolasten zuten ahurrean laztanak eta kilimak tartekatuz. Bizkarrean ere nabaritu nituen, bisaiaren mugetan, ilean endredatuta. Gorputzaren geografian esplo-

ratzaile. Eta zuk kasu egiteko, ipurdian nabaritzen zenituen nireak bi kolpetxo ematen.

Zergatik bahitu nauzu?, zer-nolako erantzuna botako didazun jakin guran.

Barre egin duzu, antza, ezpain gaineko txokolatezko bibotea tarteko. Neska bibotedunarekin argazkia atera duzu, eta behin zure aulkian atzera, pantomima guztia hankaz gora jarri duzu. Nik banekiela dena, eta seguruenik, nire nahieran moldatu dudala guztia. Aitortu dizut, bai, jai egunak hartu nituela zurekin egoteko aitzakian zuri esan gabe. Zuk, bitartean, aitortu didazu Jose Javierren burutazioak nola jarraitu dituzun, jakin gabe emaztea berriki hil zaionetik, ez dela gai bere burua zaintzeko.

Eta zergatik nitaz idatzi?

Kafeari putz egiteak ez dizu balioko.

Ez daukat bizitza izugarria, ez ditut sekulako abenturak eta ez zait iruditzen ezer handiari buruz idatz dezakezunik ni bezalako bat istorioaren gidari izanda.

Zerbait idaztean, hasi zara, barrutik ateratzen zaizulako da. Eta zure barruan dagoena, benetan axola zaizuna izaten da. Zure hitzak zeuk sinesten badituzu, guztiak sinetsiko dituzte, eta orduan, gauza txikiak handi izango dira irakurlearen irudimenean.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
Patxi
bazkariak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

943 362725
688 690 361

Potxoenea eta Sutegiko erreserbak, online

Potxoenea eta Sutegiko aretoak online erreserbatu ditzakegu jada, Usurbilgo Udalak aste hasieran aurkezturiko erreserbak.usurbil.eus atariari esker; zehazkiago esanda, Potxoeneko proiektore-gela, bilera-gela txikia, Urdintxo aretoa eta sotoa edota Sutegiko auditorioa eta erakustaretoa. Aurrerago gainerako udal lokalak ere bide telematikoa honetatik erreserbatzeko aukera egongo da.

Aipatu atariak udal instalakuntzetan lekua hartzea erraztea du helburu “bertaratu beharrik izan gabe”; ordenagailu edo mugikor bidez. Gainera, erreserba bideratzerakoan aretook okupatuak dauden edo ez ikusteko aukera egongo da kolore ezberdinekin: “kolore berdearekin udal-langileek onespina eman badiote, eta kolore laranjaarekin, udal-langileek aztertu zain badaude. Kolore laranjaarekin -aztertu zain- geldituko dira, baita ere, asteburuetan egitekoak diren hitzorduak”.

Aurrez erregistratu beharrik ez

Udal barnera begira ere egitekoak eraginkortuko dituela adierazi zuen Udalak web orri hau aurkezteko aste hasieran Potxoenean egindako agerraldian, digitalizazioak orain arteko hainbat kudeaketa lan gutxitzea ekarriko baitu. Lan-tresna izango da beraz udal beharginentzat baita herritarrentzat ere.

Erreserbak martxoaren 1etik aurrera bideratu ahalko dira Udalaren enkarguz Co-



erreserbak.usurbil.eus atariak udal instalakuntzetan lekua hartzea erraztea du helburu, “bertaratu beharrik izan gabe”.

ERRESERBAK, ONLINE

Potxoenea eta Sutegiko erreserbak martxoaren 1etik aurrera bideratu ahalko dira atari honetan: erreserbak.usurbil.eus

desyntax enpresak landutako atari berri honen bidez. Modu ezin errazagoan gainera. Ez da izena eman edo erregistratu beharko, baina eskaera egiteko identifikaziorako eta erreserbarako zenbait datu idatzi beharko dira; besteak beste, hitzorduaren helburua edo gaia, zenbat lagunentzat izango den, hizkuntza edota aparteko baliabiderik beharko den zehaztu beharko da. Eskabidea eginda, “eskatzaileak mezu elektronikoa jasoko du, kode batekin lagunduta: eskaera aldatu nahi izanez gero, kode

horrekin egin ahal izango du. Webgunearen orri nagusian, azpiko aldean, “kudeatu zure erreserba” atalean itsatsita”.

“Konektatzen”

Esandakoa, erreserba edonork egin ahalko du, baina orain arte bezala, Usurbilen erroldatua egon edo ez aldea egongo da. Udalerri honetan erroldatua dagoenaren eskaera automatikoki onartuko da; hala ez bada, herrian erroldatuak ez dauden edota enpresen eskabideak “aztertu zain” geldituko dira. Kasuotan, orain arte, eta aurrerantzean ere bai, “eskaerak talde edo elkarte batenak izanda ere, pertsona fisikoaren izenean egin ohi dira, eta kasu horretan oharretan edo hitzorduaren helburuarekin batera adieraztea eskatu dute”.

Atari hau aktibatzea Udalak legealdi honetan abiarazitako

Konektatzen egitasmoan kokatu beharra dago. Izenak berak dioen moduan, Udalaren eta bere zerbitzuen digitalizazioa sustatzea du helburu. Bide horretan hainbat urrats eman ditu udal gobernu taldeak azken urteotan. Batetik, “Eskua” aplikazioaren bidez, espedienteak digitalizatzen aritu dira. Udal zerbitzuak herritarrei telematikoki eskaintzeko ahalegina ere egin dute. Erakundearen arteko datu-trukea ahalbidetzen duen NISAE nodoaren zerbitzuak ere baliatzen hasi da Udalak. “Herritarrek hala baimenduz gero, udalak beste administrazioen datuak eskura ditzake, herritarrek udalera ekarri beharreko agiri kopurua murriztuz, eta, beraz, tramiteak erraztuz”. Lizitazio elektronikoko kontratazio plataformaren erabilpenean ere urratsak eman dituzte.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
IT-ak egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Miren Ros hezitzailea: “Asteburu bat mugikorrik gabe pasatzeko gai al naiz?”

Miren Ros Bidelagun proiektuko kidea da eta aurki pantailen erabilera egokiaren inguruko ikastaroa eskainiko du Udarregi ikastolan. Martxoan eta apirilean zehar ikastolako ikasleekin landuko du gaia eta gurasoeekin elkartuko da ondoren. “Baliabideak eta tresnak emango dizkiet gurasoei, hausnarketa bultzatu eta etxean zer egin daitekeen ikusteko”, NOAUA!rekin izandako solasaldian adierazi digunez.



Miren Ros hezitzaileak pantailen erabilera egokiaren inguruko ikastaro bat eskainiko du Udarregi ikastolan.

NOAUA! Pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartu asmoz, ikastaro bat eskainiko duzu Usurbilen. Gai honetaz mintzo garenean, ia gehienetan gaztetxoengan jarri ohi dugu fokua. Kontua ordea, askoz konplexuagoa da, ezta?

Miren Ros: Bai, hala da. Heziketaren beste arloetan bezala, egin beharreko lehenengo hausnarketa hausnarketa propioa da. Hau da, autoanalisi bat. “Guraso moduan eta heldu moduan, nik neuk zer nolako erabilera egiten dut?”. Hori da lehenengo pausoa, nire ustez.

Pantailak gudan eragin itzela dute eta aipatzen dudana arrisku zerrenda luzean, lehenengo puntua eta garrantzitsuenak sortzen duten menpekotasuna da. Horregatik, helduok eman beharko genukeen lehen pausoa litzateke jabetzea zein menpekotasun maila daukagun. Nomofobia kontzeptua existitzen da eta mugikorrik gabe gera-

PANTAILEN ERABILERAZ

“Helduok eman beharko genukeen lehen pausoa litzateke jabetzea zer nolako menpekotasun maila daukagun”

tzeko beldurra adierazten du. Kalkulatzen da biztanleriaren erdiak baino gehiagok nomofobia duela. Etxetik atera eta mugikorra ahaztu bazaigu, korrika bueltatzen gara etxera mugikorraren bila. Zentzu horretan, nik galderak egiten dizkiet gurasoei, bakoitzak bere erabilaren inguruan hausnarketa txiki bat egin dezan: iratzargailu gisa erabiltzen al dugu mugikorra? Gauetan gelan edukitzen al dut? Zenbat denbora pasatzen da jai-ki eta mugikorra hartu bitarte? Jatorduetan mugikorra mahai gainean edukitzen al dut? Ja-

sotzen ditudan mezuak eta deiak berehala erantzun behar al ditut? Galdera pila bat daude hausnarketa bultzatzeko eta hortik abiatu behar dugu. Bestela, ezin dugu gure seme-alaben bidelagun izan modu osasuntsu batean. Nik hala ikusten dut behintzat.

Hausnarketaren ondoren, zer nolako pausoak eman daitetzke?

Hitzaldietara etortzen direnei erabaki txikiak hartzeko eskatuko nieke, bakoitzak bere neurrian. Asteburu bat mugikorrik gabe pasatzeko gai al naiz? Hori izan daiteke bat. Saiakera egin dezagun eta bizi-pen horretatik ea zein ondorio atera ditzakegun. Hori gakoa da ikusteko nola eragiten duen horrelako tramankulu txiki batek gure egunerokoan, harremanetan jartzeko moduan, on-

gizatean... Ezer baino lehen, heldu, guraso eta hezitzaileok hasi behar dugu hausnarketa-rekin eta ondoren haur eta seme-alabengana jo.

Martxoan eta apirilean zehar formakuntza saio bat eskainiko diezu LH5, LH6 zein DBH1eko ikasleei. Gurasoei eta gainontzeko eragileekin ere batzekoa zara. Zer nolako metodologia jarraituko duzu?

Nire metodologia galdera bartzuetatik abiatzen da eta hausnarketa bultzatzea du helburu. Kasu konkretuak eta adibide pila bat jartzen ditut ikasleek eta gurasoek errazago ulertzeko.

Ikasleen kasuan, galdera pila bat egiten dizkiet eta batzuk idatziz egin behar izaten dizkidate modu sinple batean. Nik gauza batzuk azaltzen dizkiet eta arriskuei buruz hitz egiten dugu, baina beraien esperientziak eta iritziak asko interesatzen zaizkit. Oso polita izaten da nik azaldukoak etxean ere esan izan dizkietela entzuten dudanean. Etxean jasotako mezua eta ezezagun batek klasean esaten diena antzerakoak badira, ikasle hori indartu egiten da. Oso inportantea izaten da hori.

Familiekin apirilaren 25ean izango dugu saioa. Ikasleekin landutakoaren inguruko ondorioak aztertuko ditugu eta segidan baliabideak eta tresnak emango dizkiet gurasoei, hausnarketa bultzatu eta etxean zer egin daitekeen aztertzeko.

“Halako ikastaroek integralak izan behar dute”

NOAUA! ‘Mugi gaitezen, batu gaitezen!’ esaldiarekin amaitzen da Hitz Ahok igorri digun idatzia. Ez dirudi hitz hutsak direnik. Erantzuna integrala izan dadin, funtsezkoa izango

da elkarlana, ezta?

Miren Ros: Hitz horiek indarra dute, ezta? Gaztetxoaren inguruan dauden eragileek bat egitea oso garrantzitsua eta baliagarria iruditzen zait.

Joan den ikasturtean egin dako ahalegina ikaragarria izan zen familien aldetik, eta bereziki Hitz Ahoren partetik. Ikastolak prestutasun eta inplikazio handia azaldu zuen

eta udaletxearen laguntza ere ezinbestekoa izan zen. Nik uste halako proiektuak eragingarriak izan daitezen, integralak izan behar dutela.

“Lehen, DBH1en orokortuta zegoen mugikorraren erabilera. Orain joera hori DBH2ra pasa da”

NOAUA! Maiatzeko saiora Zarauzko guraso talde bat gonbidatuko duzue: ‘Gure aukera, guk 16’ izenekoa. Talde honen esperientzia zertan den azalduko al diguzu?

Miren Ros: Joan zen ikasturtean, Udarregi ikastolako gurasoekin tailer moduko bat egiteko asmoa genuen, baina azkenean atzeratu egin behar izan genuen. Beraz, aurtengo maiatzean egingo dugu. Bertan ‘Gure aukera, guk 16’ taldearen berri emango dugu. Duela lau urte sortu zen Zarauzko Salvatore Mitxelena Ikastolan. Guraso talde batena izan zen ekimena (Miren Ros bera ere talde honetako kide da).

Duela zazpi bat urtetik hona, bertako guraso eskolan saio batzuk eskaini ditut. Guraso paperetik kezkatzen gaituzten gaiet buruz hitz egiten dugu eskola horietan. Saio batean, teknologia eta mugikorren inguruan hausnarketa egiten hasi ginen eta konturatu ginen gaztetxoei oso goiz ematen genizkiela lehenengo mugikorrak. Horren aurrean zer egin genezakeen kezkatuta, taldetxo bat sortu genuen eta ‘Gure aukera, guk 16’ proiektua jarri genuen martxan.



‘Gure aukera, guk 16’ taldeko kide ere bada Miren Ros (eserita, erdian). Argazkia: Elena Marguello, Zarauzko Hitza.

MIREN ROS

“Gaur egun, nahiz eta 16 urteko epe hori utopia bat izan, lortu dugu mugikorrarena pixka bat atzeratzen joatea”

Hamaseirekin, zergatik?

16 urtetik aurrera garapen eta heldutasun maila indartsuagoa delako. Nerabezeroan oraindik garatu gabe daukagu burmuina eta 25 urte bete arte ez da erabat garatzen, hala diote neurologoek. 16 urtetik aurrera adin egokia zela iruditu zitzaigun lehen mugikor hori izateko.

Hori izan zen abiapuntua. Lehen mugikorra erosten dugunak gurasoak gara eta beraz, lehenik eta behin gurasoekin hitz egin behar zela ulertu genuen.

Bilerak eta kafe tertuliak antolatu genituen, gaiak hausnartzeko. Hitzaldiak ere eman ditugu, betiere, gurasoen konplizitate hori bilatze aldera. Nahiz eta 16 urteko epe hori utopia bat izan gaur egun, lortu dugu lehen mugikorraren erabilera pixka bat atzeratzen joatea. Lehen DBH1en orokortuta zegoen mugikorraren erabilera. Orain joera hori DBH2ra pasa da. Helburua da pixka-

naka atzeratzen joatea, eta ez hori bakarrik, erosteko eta aurreragoko bide horretan bidela-gun izatea. Lan pedagogiko bat egitea da asmoa. Maiatzeko saioan horri buruz arituko gara Udarregiko gurasoekin.

Bidelagun proiektuko kide zara eta bestelako gaiak ere lantzen dituzue. Lehen ez bezala, akaso orain arreta gehiago jartzen zaie gaztetxoei lotutako gaiei?

Baietz esango nuke. Hezkuntzarekin eta heziketarekin lotutako gaien inguruan gurasoak geroz eta sentsibilizatuago daude. Baina beste lanbideetan formakuntza beharrezkoa den bezala, gurasoontzat ere horrelako saioen bidez informazioa jasotzea, esperientziak partekatzea eta kezkek argitzea aukera izatea oso aberasgarria da. Afrikako esaera batek dioen bezala, haur bat hezteko tribu osoa behar da. Hori pixka bat galdu egin da gaur egungo gizarte honetan. Indibidualistagoak gara. Aldiz, horrelako espazioen bitartez, antzeko kezkek dituzten pertsonekin informazioa elkarbanatu eta ikasteko aukera dugu. Oso aberasgarria izaten da.

Pantailaren erabilera egokiari buruzko ikastaroa hastear da

Bidelagun proiektuaren bitartez, Miren Ros hezitzaileak gai ezberdinei buruzko hitzaldiak eta tailerrak eskaintzen ditu han eta hemen: elikadura, sexualitatea, bullying-a, eskola egokitzapena... Horiekin batera, mugikorren erabilera da arreta gehien pizten duen tematika. Martxoaren 6tik aurrera, pantailen erabilera egokiari buruzko formakuntza saio bat eskainiko du Udarregi

ikastolan.

Udalarekin eta Udarregirekin elkarlanean

“LH5, LH6 eta DBH1eko ikasleei formakuntza eskaini ondoren, geletan ikasleekin landutakoa azalduko digu gurasooi Miren Rosek”, Hitz Ahotik azaldu digutenez. Talde eragilearen berri ere emango da bilera horretan.

“Maiatzeko saioan berri,

interesatu orok nahi adina kezka plazaratzeko eta lantzeko aukera izango du”.

Ikastaro hau antolatzeko, Hitz Ahok Udalaren eta Udarregi ikastolaren laguntza jaso du.

Ikastaroa Udarregin:

■ DBH1eko ikasleen formakuntza: martxoak 6 astelehena.

■ LH5eko ikasleen formakuntza: martxoak 27 astelehena.

■ LH6ko ikasleen formakun-

tza: martxoak 28 asteartea.

■ Gurasoekin: apirilak 25 asteartea, arratsaldeko 17:30ean Udarregi ikastolako jangelan.

■ Interesa duten herritar ororekin: gurasoak, irakasleak, hezitzaileak, teknikariak... Maiatzak 2 asteartea, arratsaldeko 17:00etan Potxoeanean. ‘Gure aukera, guk 16’ Zarauzko guraso taldeak gonbidatu gisa hartuko du parte.

Berraktibazioa, Martxoaren 8ko aldarria eta erronka

Berraktibatzea dute erronka nagusia, elkar zaintzatik, dituzten behar eta nahietatik abiatuta. Hortik ate joka dugun Martxoaren 8rako hautatu duten leloa; “emakumeak aktibatzean mundua pizten da”. Osasun krisialdiak eragin duen lokartzetik esnatu asmoz, “aktibatzeke eta pizteke” bururatu zaio esaldia, Martxoaren 8ko ekimenak antolatu dituen taldeari. Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak antolatu duen Hirusta Trio taldekoen emanaldiarekin batera, bi ekintza egun prestatu dituzte M8 emakumeen taldeak. Bertan dira Kafe Tertuliako kideak edota Emakumeen Etxeko talde sustatzaileko partaideak ere.

Hasteko, irekierara begira den Kalezarko Pelaiocenean kokatuko den Emakumeen Etxeari lotutako asanblada irekia egingo da larunbat honetan, martxoaren 4an. Orain arte jorratu den prozesua azalduko dute eta bilgune honetako kide izatera animatu asmo dituzte, “emakumeek jakin dezaten bere lekua dutela hemen”. Dinamikak egiteko bilgune bat eraiki nahi dute, baina baita elkarrekin egon, hausnartu eta harremantzeko espazio bat ere. “Emakumeok zer nahi dugun, zer behar dugun adierazteko, gu gustura, zainduta sentitze-



Martxoaren 8rako hautatu duten leloa hauxe da: “Emakumeak aktibatzean mundua pizten da”.

EMAKUMEEN ETXEA

“Dinamikak egiteko bilgune bat eraiki nahi dute, baina baita elkarrekin egon, hausnartu eta harremantzeko espazio bat ere”

ko leku bat izatea nahi dugu”.

Bertan, emakume desberdinen arteko bilgunea sustatu nahi dute. “Gure taldean

badaude beste lurraldeetako emakumeak ere herrian denbora daramatenak bizitzen. Beraiei ere entzuten egon gara. Haiek halako espazio bat izateko beharra oso argi adierazi dute”. Eta hala jaso dute baita, beste Emakumeen Etxeetara egin duten bisitetan ere. “Iku-si dugu zer mesedegarria izan den halako bilgune bat izatea. Hori nahi dugu guk ere herriko emakumeentzat”.

Jatorri anitzeko bilgune bat

eraiki nahi dute, baita belau-naldiartekoa ere. Pandemia aurreko azken Martxoaren 8 hartan jorratu zuten belau-naldiartekotasuna da hain zuzen berreskuratu nahi dute aurten-go Emakumeen Egunean baita Pelaiocenean sortuko duten espazioan ere. “Kafe Tertulia Usurbilgo neska* gazteen talde feministak denbora asko darama lanketa asko egiten eta haiekin ere bat egin nahi dugu era naturalean”.

“Bultzada bat behar dugu”

Hau guztia antolatze-kotan, “herritik sortu beharra dago”, aipatu digute. Etxekide izatera animatuko dituzte emakumeak larunbateko asanbladan. Horrez gain, espazioaren kudeaketaz ere jardungo dute, ez baita ahaztu behar, Kalezarko Belmonte

auzo elkartearekin partekatu beharko dutela Pelaiocenea.

Kalezarko erdigunean kokatuko den egoitza berria ez da soilik espazio fisiko bat izango, “talde bat dago etxe hau edukiz janzteko”. Lerrotako protagonistak kide dituen talde sustatzailea. Horregatik,

lanak azken txanpan dauden honetan, “denon artean bultzada bat behar dugu, berriro elkartu eta elkarrekin bide bat egiten hasi”. Horren abiapuntu izatea nahi dute larunbateko asanblada irekia.

Parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrek. “Azaldu eta

indarra hartzeko” egun gisa izendatua dute hain zuzen, hilaren 4ko hitzordua eta horren osteko bertso-bazkaria, gogoratzen duten moduan, “ez gaude eta une indartsu batean, edozein mugimendu sozialen antzerira”.

Emakumeen Etxea, bateragunea

Pandemia aurreko Martxoaren 8 haiekin oroituz gero, greba eta mobilizazio egunak izan ziren osasun krisialdi aurreko egun haiek. Inoiz ikusi gabeko irudiak eta mugimendua azaleratu zen bai herrian, baita mundu mailan ere. Usurbilen, belaunaldi ezberdinetako emakumeek planto egin zuten. “Oso polita izan zen. Sentimendu oso bizi eta politik eragin zituen ez bakarrik Usurbilen, mundu mailan baita ere”. Egunotan ikusgai izango dituzue Sutegiko erakusleihoan eta dendetan orduko hainbat irudi.

Argi dute ordea; beste une bat da egun bizi duguna. Greba egun haietan, “emakumea geratzen bazen, horren munduan zer nolako eragina izango zuen” irudikatu nahi izan zuten. Orduko hartan, geratzeko deia egin bazuten, orain berriz mugitzera deitu nahi dituzte emakumeak. Une ezin aproposagoa deritzote, Emakumeen Etxea irekitzearen den honetan. “Espero dugu etxe horrek guri ere laguntzea, urteotan jorratu diren bide guztiak hor bateratzea”. Erronka txikiak jarrita ekin nahi diote garai berri honi, kideen zaintza bermatuta eta nondik datozen aitortuta, nola gauden horretatik abiatuta.



“2019 eta 2020ko M8an kalera atera ginen, gogoa izan eta behar bat genuelako. Behar hori ez da desagertu. Orain gogo hori berreskuratu behar dugu”.

EMAKUMEEN ETXEA

“Espero dugu etxe horrek guri ere laguntzea, urteotan jorratu diren bide guztiak hor bateratzea”

tuta. Eginbeharrak hor daude, beti bezala, baina “egin behar dugu? Egin nahi dugu? Eta horren aurrean, nola nago ni? Nola zaude zu? Nola gaude?”. Argi diote, “benetan zaintzen ikasi behar dugu, errespetatzen benetan ondokoa nola dagoen”.

Galdera hauek partekatzen aritu dira taldean, orain arte

hitz egiten ez ziren gaiak izan direla nabarmendu digute eta mahaigaineratu ahala lasaitu ederra hartu dutela diote. “Garrantzitsua izan zen partekatzea”, azpimarratu dute. “Hitza jarri genion hor zegoen sentimendu bati”, arestian aipatu moduan, bizi dugun garaiari oso lotua dagoen “indar faltari”. Hitza jarri zioten bai, “jabetu gara nola gauden denok”. Askatze horrek eman die “doluaren atal guztiak” bizitzeko aukera.

“Komunitatetik lanean jarraitzea”

Prozesu hau barneratuta, “hortik ateratzea” geratzen zaiela

orain adierazi digute, eta hain zuzen horixe da Martxoaren 8rako iragarri dituzten ekimenekin irudikatu nahi dutena. 2019 eta 2020ko M8an “kalera atera ginen, gogoa izan eta behar bat genuelako. Pandemiarekin bakoitza gure etxean sartu eta desagertu gara. Baina behar hori ez da desagertu. Orain hori berreskuratu behar dugu”. Argi dute halere, ez dela berehala beteko den erronka izango. “Oso erraza da aldaketa soziala ematen den unean ilusioa piztu eta denak altxatzea. Orain, ordea, asko sukaldatu beharko da berriz halako mobilizazio jendetsuak izateko”. Era berean ordea, hortxe kokatzen dute aurrera begirako lan-ildo nagusia, “komunitatetik lanean jarraitzea”. Emakumeen Etxeak etorkizunean egingo duen moduan, edota orain arte, besteak beste, Kafe Tertuliak urteotan egin izan duen bezalaxe. “Gazte mugimenduaren baitan geratu ez den eragile bakarra izan da. Desaktibazio orokorra eman denean, metaforikoki hitz egindaugar bat egon da inoiz itzali ez dena, jende konprometituari esker, Emakumeen Etxearekin gutxi batzuk segi izan duten moduan. Orain berriz saiatuko da aktibazio hori pizten”.

Martxoaren 8a Usurbilen

Martxoaren 8a arte

Aurreko Martxoak 8ko irudien proiektzioa Sutegiko erakusleihoan. Dendetan ere irudiak ikusgai.

Martxoak 4, larunbata

■ 12:00 Emakumeen Etxeari lotutako asanblada irekia Potxoenean. Izen-ematea aurrez, bideotatik: 943 377 110
parekidetasuna1@usurbil.eus

■ Segidan, bertso-bazkaria Artzabalen. Parte hartzaileak: Maialen Lujanbio, Jone Uria eta Saioa Alkaiza. Gai-jartzaileak: Amaia Agirre. Sarrerak: agortuak.

Antolatzailea: Emakumeen Etxearen talde sustatzailea.

Martxoak 8, asteazkena

Pandemia eta desaktibazio sozialaren inguruko mahain-gurua, elkarretaratzea eta per-

formance-a:

■ 18:00 Mahai-ingurua Sutegin. UEU-ren “Herri mugimenduen antolaketa egiturak eta militantzia eredu berriak” izeneko solasaldiaren proiektzioa. Hizlariak: Mari Luz Esteban, Iker Iraola eta Nerea Blanco. Bideratzailea: Idoia Torregarai. Segidan, hausnartzeko tarteak. ■ 20:00 Elkarretaratzea eta performance-a Mikel Laboa plazan.

Antolatzaileak: M8 Emakumeen taldea.

Martxoak 11, larunbata

■ 19:00 Hirusta Trio taldearen “Matrioshka baten soinu geografia” emanaldia Sutegin. Sarrerak: 5 eurotan eskuragarri aurrez, usurbilkultura.eus plataforma bidez. Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

Hirusta Trio taldea: “Matrioshka da gure kontzertuaren ikurra”

Margarita Lorenzo de Reizabal (musikaria, piano jolea eta proiektu honen sortzailea), Julene Zenikazelaia Garai (literatur eta komunikazio arloan arduraduna) eta Garbiñe Abendaño Olabarri (ahotsa) edo Hirusta Trio taldeak borobilduko du Martxoaren 8ra begira Usurbilen antolatu diren ekimenen zikloa. Euskal Kantu Taldekoen eskutik etorriko dira gure artea. Martxoaren 11n larunbata, 19:00etan Sutegin eskainiko duten “Matrioshka baten geografia soinuaduna” emanaldia ezohikoa izango dela aurreratu digute hiru sortzaileek.

NOAUA! Hiru zenbakiak garrantzia nabarmena du zuen taldean, ezta?

Julene Zenikazelaia: Gure erdigunea Leioako Doniene abesbatza da. Zuzendaria Garbiñe da eta Margarita gure pianojole maitea. Bera izan zen gu hirurok elkartzearen ideia 2018an. Gure azkeneko proiektuaren ideia berarena da. Hirusta izena jarri genion taldeari, eta zortearren konnotazioa du.

Egungoaren aurretik, Miren Agur Meaberen poema batean



Martxoaren 11n larunbata, ‘Matrioshka baten geografia soinuaduna’ kantaldia eskainiko dute Sutegin. Sarrerak usurbilkultura.eus atarian eskura daitezke.

MARTXOAREN 11N SUTEGIN ARITUKO DIRA

“Emakumeak barrutik, kanpotik nolakoak garen erakutsi nahi dugu. Ertz horiek guztiak islatzen dituzte emanaldiko arte diziplina ezberdinek”

oinarrituriko “amodiozko tintontziak ote gara?” proiektua landu genuen. Pandemiagatik etenda geratu zen, gero berrekin genion gure eginkizunari.

Bigarren proiektua dakarkizue Sutegira. Biek ordea lotune

bera dute, emakumea?

Margarita Lorenzo de Reizabal: Matrioshken antzera, emakumeak polifazetikoak gara; amak, bidelagunak, lagunak, maitaleak... gara. Hirurak ibilbide pertsonal luzekoak eta esperiantzidunak. Emakumeak barrutik, kanpotik nolakoak garen erakutsi nahi dugu. Ertz horiek guztiak islatzen dituzte emanaldiko arte diziplinek.

Nola uztartzen da arte diziplina bakoitza zuen emanaldietan?

Garbiñe Abendaño Olabarri: Ikuskizun gutxi daude egun

elementu bakarrarekin liluratu dezaketinak. Gure emanaldietako elementu bakoitzak bata bestea indartu eta ikuskizuna osatzen du.

J.Z.: Ahotsa, musika eta olerkia uztartzen ditu, baita alde estetikoak ere ikus-entzunezkoekin, emakume gazte islandiar baten laguntzaz.

M.L.R.: Etorkizunean ahal bultz, norbaitek dantza egin eta arte diziplina guztiak ikuskizun multimedia batean txertatzea litzateke erronka.

Matrioshka batek irudikatzen du aurkeztuko diguzuen emanaldia. Nolatan?

M.L.R.: Ukrainako gerraren harira. Ukrainako eta Errusiako emakumeek amankomunean zutena ikertzekoan atera zen matrioshkaren irudia. Emakumeak izan behar luke elementu kohesionatzailea. Jatorria edozein izanda ere berdin sentitzen dugu. Ze pena, interes berak izanda borrokatu beharra izatea. Kontzertuan zehar matrioshka bat aurkeztu dugu. Julene, irekitzen doa bat bestearen atzetik, poema bakoitzaren ostean. Matrioshka da kontzertuaren ikurra.

“Hirugarren adinean gaudenoi ere ahotsa eman behar digute”

NOAUA! Nola nahiko zenukete ikus-entzuleak zuen emanaldia jasotzea?

J.Z.: Ikuspegi zabal eta parte hartzailearekin. Publikoarekin harreman zuzen bat eraikitzen saiatzen gara. Emanaldi bukaerako esaldiak laburbiltzen du hau guztia ondoen: jendeak ahaztuko du esan edo egin duzuna, baina inoiz ez du ahaztuko nola sentiarazi duzun. Ondo pasako dute.

M.L.R.: Mundua gazteena

dela uste dute askok, eta hala dela uste dut. Baina dugun bizi esperientziagatik hirugarren adin eder honen bueltan gaudenoi ahotsa eman behar digutela uste dut. Zertarako balio digu bidean ikasi dugun guztiak, gero hausnarketa horiek atzetik datozenei utzi ezin badizkiegu?

G.A.O.: Publikoa ere aztertu beharra dago. Gazteak ez dira topaketa klasiko hauetara hurbiltzen.

M.L.R.: Gazte jendea faltan bo-

tatzen dugu baina ezin dugu lehiatu egungo sare sozialen munduarekin. Halere aukerak eskaini behar zaizkie.

Adinkeria nola islatzen da zuen dinamikan?

M.L.R.: Hirurok lan egiten dugun arlo akademikoan ez baina arlo artistikoan nabari da. Badirudi gazteei txanda eman behar zaien kultura nagusitzen dela, baina egun dugun bizi itxaropenarekin, adierazteko asko duen adineko jende

horrengan pentsatu behar da.

G.A.O.: Zinean adibidez gizonetako adinekoak ikusten dira, askoz gehiago zigortzen da emakumea izatea. Emakumeak gaztea izan behar du, eta ez bada, haren antza izan behar du. 60 urtetik gorako zenbat emakume kantari daude?

J.Z.: Ahalduntze prozesu batean gaude emakumezkoen arloan, baina emakume helduok ere badugu zeresanik.

Harri Agirresarobe, Eskolarteko Bertsolari Txapelketan

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa hastear da. 22 bertsolarik eman dute izena eta tartean da Harri Agirresarobe usurbildar gaztea. Lau kanporaketa jokatu dira martxoan zehar eta finala apirilaren 21ean izango da, Lasturren.

Martxoaren 10ean abiatuko da txapelketa eta lehen saioa Legazpiko Muruazpi Elkartean izango da. Harri Agirresarobek lehen kanporaketa honetan abestu beharko du. Harriekin batera, hauek dira oholtza gainera igoko diren gainerako bertsolariak: June Aiestaran, Uxue Igartua, Eñaut Olarra eta Aratz Arzelus.

Martxoaren 17an ostirala, Zarauzko Urpekoak Elkartean
Amets Aizpurua, Urko Arakistain, Jakes Etxeberria, Aratz



XIII. mendeko hiribildutik abiatuta, iraganeko hainbat pasarte ekarri zituzten gogora HerrimaMITUZ berto-saioan. Aurreko igandean Aginagako Eliza Zaharrera hurbildu zirenek tarte atsegin bat igarotzeko aukera izan zuten.

SARRERAK SALGAI

“Kanporaketak berto afari formatuan jokatu dira. Txartelak

www.bertsosarrerak.eus atarian eskura daitezke”

Ramos, Maddi Lasa, Sustrai Goenaga.

Martxoaren 24an ostirala, Errezilgo Erniope Elkartean
Jon Mendiluze, Izar Zelarain, Jare Bengoetxea, Peru Alijostes, Beñat Zeberio, Egiar Otegi.

Martxoaren 31n ostirala, Amezketako Zazpi Iturrin
Danel Etxeberria, Lide Arregi, Nikola Iraola, Oihan Navarro,

Xuban Urdalleta.

Kanporaketa bakoitzeko irabazlea, finalera

Saio bakoitzeko irabazlea zuzenean sailkatuko da apirilaren 21ean Lasturko tabernan ospatuko den finalera, eta finaleko seikotea puntuazioz sailkatutako beste bi bertsolariekin osatuko da.

Txartelak eskuragarri

Bertsozale.eus web orrialdean aditzera eman dutenez, “kanporaketa guztiak berto afari formatuan izango dira eta afarirako txartelak www.bertsosarrerak.eus atarian eskuratu ahal izango dira, saio bakoitzaren aurreko eguneko eguerdira arte”.

Eskolarteko txapelketako finalerako txartelak aldiz, kanporaketa denak amaitutakoan jarriko dira salgai.

Zuareta
Muralaren 50. urteurrena

50

1973 - 2023

Ezagutu gertutik muralaren kontserbazio lanak!

Martxoak

5

11:30ean
muralean bertan

<https://650usurbilbizi.eus/agenda>

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2023

Martxoak 10, OSTIRALA

FRUITU ARBOLEN UDABERRIKO EDO

ZOTZEKO TXERTAKETA

Josu Osa

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenea

Martxoak 17, OSTIRALA

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA,

GAIXOTASUNAK ETA TRATAMENDUAK

Aitor Etxeandia

ORDUTEGIA: 15:30-18:30 Potxoenea

SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman edo
www.alkartasuna.eus



Kimaketa
praktikak
bertako
sagastietan
egingo dira!



Agerreazpiko udal baratze parkeko kontzesioak berritzeko garaia iritsi da

Udalak 60 partzela ditu Agerreazpiko baratze parkean. Ustiatzeko baimenak bost urtekoak izaten dira eta berritzea tokatzen da. Eskerak aurkezteko epea aste honetan ireki da eta martxoaren 20ra arte egongo da zabalik. Orain arte bezala, baimen berriak ere bost urterako izango dira, 2028ra arte.

Udalak aditzera eman duenez, zozketa bidez ebatziko da 60 partzela horien ustiake-ta. "Partzela baino eskatzaile gehiago badaude, itxaron zerrenda ere osatuko dute; hala, partzela bat kontzesioa bukatu aurretik hutsik geldituko baltiz, zerrenda horretako lehenengoak ordezkatzuko luke".

Deialdiaren oinarriak otsailaren 27an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Kontzesioen prozedura

Partzelen kontzesioa zozketa bitartez ebatzitako dela azaldu du Udalak eta hurrengo prozedura jarraituko da:

■ Ezinbestean eskaera Usurbilgo Udalean aurkeztu beharko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko otsailaren 27ko biga-



Agerreazpiko baratze parkean 60 partzela daude. 36 partzela 30m²-koak dira eta beste 24ak, 60m²-koak.

UDAL BARATZEAK

"Esleipendun berriak lehendik udal baratzeen erabiltzaileak badira, aurretik lantzen duten udal baratza esleitu-ko zaie, azalera bereko baratzea eskatzen badute"

rreren eta hirugarren eranskinak beteta.

■ Eskeraren artean lehentasun taldea osatuko dute langabetuek, jubilatuek, pentsiodunek, gazteek (gehienez ere 25 urte), familia ugariak, emakumeak eta udal baratzetako

konpostatze komunitarioko arduradunek. "Lehen zozketa, lehentasuna dutenen artean izango da. Ondoren, partzelarik esleitzeko balego, gaintzeko eskatzaileen arteko zozketa izango da", udalaren prentsa-oharrean jasoa datorrenez.

■ Esleipendun berriak lehendik udal baratzeen erabiltzaileak badira, aurretik lantzen duen udal baratzea esleitu-ko zaio, azalera bereko baratzea eskatzen badu.

■ Esleipendunen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, eta 10 egun balioduneko epea izango da alegazioak

aurkezteko. Horren ostean, onartutako eta baztertuen behin-betiko zerrenda argitaratuko da. Dena den, zerrenda horretan onartuta egoteak ez du esan nahi partzela zuzenean adjudikatu denik: partzelen adjudikazioa egiteko beste zozketa publiko bat egingo da, Sutegin (aurrerago jakinaraziko da zein egunetan izango den).

■ Erabiltzaileek Agerreazpiko udal baratzeen elkarrearen parte izan beharko dute: uko egingez gero, edo elkarteko betebeharrak ez egiteak partzela erabiltzeko eskubidea galtzea dakar.

Tamaina ezberdineko 60 partzela

Agerreazpiko baratze parkeko 36 partzela 30m²-koak dira eta beste 24 partzelak, 60m²-koak.

Agerreazpiko baratze parkeak 10 urte bete ditu

Bi aldiz esleitu dira partzelak orain arte, 2013an eta 2018an, eta aurtengoa, beraz, hirugarrena izango da. Aurrekoetan bezala, esleipenok ere bost urterako izango dira, 2028. urtera arte.

AEK-ren literatura lehiaketak zabalik jarraitzen du

Etumeta AEK euskaltegiak antolaturiko ipuin laburren lehiaketa parte hartzeko epea apirilaren 17an amaituko da.

Parte hartzaileak

■ 18 urtetik gorakoei zuzendurikoa da txapelketa.

■ Usurbilen erroldatua egon beharko du edo Etumeta AEK euskaltegian matrikulatua lanak bidaltzeko unean.

Lehiaketaren ezaugarriak

■ Ipuin laburrak izango dira,

650 hitz, gehienez.

■ Times New Roman letran idatziak, 12 neurrian, espazio bikoitzarekin.

■ Gai librean idatziko dira.

■ Lanak aurrez argitaratu gabeak izango dira, baita lehiaketaren batera bidali gabeak ere.

■ Euskaraz idatziak behar dute.

■ Ez da inolako pertsona zein kolektiboren aurkako eduki iraingarriarik onartuko. Baldintza guztiak onartzea dakar parte hartzeak berak, lehen hau barne.

Lanen aurkezpena

■ Dokumentu batean: ipuina bera, marka identifikagarriarik gabe, PDF formatuan. Artxi-boaren izena ipuinaren izenburua bera izango da: "Izenburua.pdf".

■ Beste dokumentuan: parte hartzailearen datuak, hau da, izena, bi abizenak, jaio-tze data, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, PDF formatuan. Artxi-boaren izena ipuinaren izenburuarekin bera-ekin identifikatuko da: "Izen-

burua.datuak.pdf".

Sariak

■ Txapeldunarentzat, 250 euro.

■ Aipamena: 50 euro.

■ Parte hartzaile guztiak gonbidatuta egongo dira sari banaketara, eta oroigarri bana emango zaie.

Informazio gehiagorako:

■ blogak.eus/etumeta-euskaltegia-ae

■ 607 609 379.

Zero Zabor Udalerriak Ziurtatzeko Programara atxikiko da Usurbil

Udal gobernuaren esanetan, “interesgarria eta beharrezkoa da tokiko erakundeak Zero Zabor prozesuan murgilduta dauden bestelako erakundeekin elkarlanean jardutea, arazo berdinen aurrean eman daitezkeen erantzun eta irtenbideak ezagutu, partekatu eta hobetzeko asmoz”. Filosofia horren bueltan aurkeztu zuen otsailaren 23ko osoko bilkuran nazioarteko Zero Zabor mugimenduak sustaturiko Zero Zabor Udalerriak Ziurtatzeko Programara atxikitze proposamena.

Proposamena gehiengo osoz onartu zen: EHBilduren babesarekin eta EAJren aurkako boztoarekin.

Erabaki honekin, “Zero Zabor Udalerriak ziurtapen-programaren barruan Usurbilgo Udalarri eska dakizkiokkeen betekizunak eta zereginak betetzeko konpromisoa” hartzen du, “horretarako, beharrezkoa balitz, dagozkion kontratazioak bideratuz”. Europar Batasuneko 400 udalerrirekin lan egiten duen programa hau “tutoretza- eta aitorten-sistema batean oinarritzen da gaur egun”. Programa hau “abian da Europa mailan eta bertan 24 herrialdeetako 30 erakundek parte hartzen dute, guztiek ere Zero Zabor eredu bultzatu asmoz”.

Onurak

Urrats hau emateak hainbat



Programa honetara atxikitzeak, “gure lana hobetu eta gure buruarekiko zorrotzagoak izateko nahia” islatzen duela dio udal gobernu taldeak.

EAJ-REN BALORAZIOA

“Hondakinen arloko prebentzio lanarekin adostasuna agertu zuen Josune Urkola bozeramaileak. Aldiz, entitate pribatu bateko kide izatearekin eta horretarako sarrera eta kuota ordaintzearekin ez daudela ados gaineratu zuen”

onura ekarriko dituela iragarri dute. Batetik, “Usurbilen antzeko ereduarekin, laguntza profesional handiagoa izatea Europa osoko esperientziarekin. Babes hau berme izango da plan ezberdinak eraginkorrak izan daitezen baita garaiz eta behar bezala ezar daitezen ere”.

Horrekin batera, “Zero Za-

bor eta Ekonomia Zirkularren estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko, gainbegiratzeko eta optimizatzeko etengabeko laguntza” ere ahalbidetuko du programa honetara atxikitzeak. Azkenik, “Usurbilgo lana Europako eta nazioarteko audientzia baten aurrean erakusteko aukera, irudi positiboa eta Usurbilgo udalerrira sektoreko lider gisa onartua izatea (web mintegiak, ikasketa bidaia, formazioak...)”.

Hobetzeko akuilu

Proposamenaren aurka bozkatu zuen EAJ-k. Hondakinen arloko prebentzio lanarekin adostasuna agertu zuen Josune Urkola bozeramaileak. Aldiz, entitate pribatu bateko kide izatearekiko eta horretarako sarrera eta kuota ordaintzearekin ez daudela ados gaineratu zuen. Udal gobernu taldetik

erantzun ziotenez, urtean 1.500 euroko kostua izango du ziurtagarria eskuratzeak eta hiru urtean behin Udalarri egingo zaion auditoria lanak 1.250 euro. “Udal baten aurrekontua” zenbatekoa den kontuan izanda, ez da aparteko kostu bat udal gobernu taldearen esanetan.

Diru kontuok alboratuta, aberasgarritzat jo zuten programa honekin bat egitea. Egun %87an den gaikako bilketa are gehiago hobetzeko aurrerapausoak ematen lagundu dezakeela irizten dio EHBilduk, baina batez ere, prebentzioaren eta berrerabilpenaren arloetan “egiteke asko” dagoenez, “Europako esperientziatik asko ikas dezakegu”. Programa honetara atxikitzeak, “gure lana hobetu eta gure buruarekiko zorrotzagoak izateko nahia” islatzen duela dio udal gobernu taldeak, orain arte Usurbilek jorratu duen bideagatik “herritarrak zoriundu eta bidean sakontzeko akuilu izan daiteke”.

Martxoaren 8ra begirako adierazpenak babes osoa jaso zuen

Udalbatzak aho batez onartu zuen Martxoaren 8ra begirako adierazpena, aurreko asteko osoko bilkuran aztertu zen mozioa eta bertan ordezkaturak zeuden zinegotzi guztien onepena jaso zuen.

USURBIL DÖNER KEBAB

843 675 265
603 609 183

USURBIL DÖNER KEBAB

Borda Berri Kalea, 5

GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15

reformas@reformasmonroy.com

KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

2022an hondakinen %87a bildu zen gaika bereizita

Hamalau urte beteko dira martxoaren 16an, Usurbilek herritarren ohitura aldaketa txiki batekin hondakinen kudeaketa ereduaren ordura arteko ibilbidea zeharo aldatu zuenetik. Hondakin zati bakoitza atez ate biltzeko zerbitzua martxan jarri zen. Gaika bereizita jasotako hondakinen ehunekoa nabarmen igo zen denbora tarte laburrean. Azken urte luzeotan %80tik gorakoa izan da, baita iaz ere.

Usurbilgo Udalak jakinarazi duenez, udalerrri honetan bildutako hondakinen %87 bildu zen gaika iaz, “2021eko datuei eutsiz”. Halere, “urte osoan bildutako hondakin kopurua 2021ekoa baino %3,9 gutxiago izan da: guztira, 3.056 tona. Hori horrela, usurbildar bakoitzak urtean sortzen duen hondakin kopurua 500 kg azpitik



“2022an inoizko errefusa kopururik urriena jaso da: 391 tona (2021ean, 405 tona izan ziren)”, udalak aditzera eman duenez.

UDALAREN BALORAZIOA

Hondakinen %87 bildu zen gaika iaz, “2021eko datuei eutsiz”. Halere, “urte osoan bildutako hondakin kopurua 2021ekoa baino %3,9 gutxiago izan da: guztira, 3.056 tona”

kokatu da (496 kg)”.

Marka berri bat errefusaren bilketan

Errefusaren bilketak ere marka berri bat hautsi duela gaineratu du Udalak. “2022an inoizko errefusa kopururik urriena jaso da: 391 tona (2021ean, 405 tona izan ziren)”. Modu horretan, gaikako bilketaren

helburua inoiz baino neurri handiagoan bete dela nabarmendu dute. “Gaikako bilketaren helburua ahalik eta hondakin gehien bereizita biltzea da, hondakin horren berrazko tratamendua erraztu eta, aldi berean, errefusa edo ezin birziklatu den hondakin kopurua gero eta gutxiago izan dadin ahaleginduz”.

“Tokiko konpostak ere gorakada izan du”

Errefusaren bilketak behera egin du, baina “tokiko konpostak gorakada izan du, iaz martxan jarritako baserri konposta tarteko. Tokiko konpostak barne hartzen ditu auzo- eta auto-konposta eta, orain, baita baserri konposta ere; lehen biek beheerakada izan badute ere, baserri konpostaren bidez lortutako 22,54 tonei esker gora egin du”.

Zumetaren Kontserbazio lanak hurbiletik ikusteko aukera

Jose Luis Zumetaren frontoi atzealdeko horma-irudiak 50 urte bete ditu. Urtemuga betean murgildu da herria. Gogoan izan, hainbat ekimen iragarri dituztela data seinalatu honetarako Zumeta Arte Estudioak eta Usurbilgo Udalak; tartean, abian diren kontserbazio lanak. Zereginok hurbiletik ezagutzeko aukera izango du talde mugatu ba-

tek igande honetan bertan, martxoaren 5ean. Goizeko 11:30ean hasita, muralaren parean. Hitzordurako izena aurrez bideratu beharko da, 650usurbilbizi.eus atarian. Artyco enpresa ari da bideratzen kontserbazio lanak. Enpresa horretako kide Azucena Priorrek eta Usoa Zumetak gidatuko dute igandeko ekitaldia.

Txirikorda gertutik ezagutzeko bisitak ikusmina eragin zuen



Ugartondoko belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa bisitatzeko aukera izan zen aurreko astean. Lanak azken txanpan direla ikus ahal izan zuten.

ARANKA BERRIKUNTZAK
Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
Igeltseritza orokorra
722 297 867 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 19/22
20170
USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Sagarrondotik Sagardora ikastaroko bi saio egingo dira martxoan

Bi saio iragarri ditu Alkartasuna Kooperatibak martxorako:

Martxoak 10, ostirala

■ 15:30-18:30 'Fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa', Josu Osa adituarekin.

■ Azalpena: "Neguko txertaketari buruzko ikastaro teoriko-praktikoa. Zortzi txerto mota baino gehiago ikasiko ditugu".

Martxoak 17, ostirala

■ 15:30-18:30 "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak", Aitor Etxeandia adituarekin.

■ Azalpena: "Neguko inausketa mota desberdinak eta bere helburuak azalduko dira; ekoizpenaren hobekuntza. Arbolaren



Josu Osa martxoaren 10ean izango da Potxoenean.

erregulazioa fruta adarrak sortuz, airea eta argitasuna bilatu, adarrak berritu. Ongariketa desberdinen helburuak eta bere aplikazioak ere aztertuko dira. Inausketa praktikak Usurbilgo

sagastietan egingo dira".

Izen-ematea:

- usurbilkultura.eus
- alkartasuna.eus
- 943 361 114.

Gandiara ez, Calellara doaz Usurbil KE taldekoak

Hasiera batean Valentzia aldera joan asmo zuten, Gandiara zehazkiago esanda. Hantxe apirilaren 6tik 9ra jokatzekoa zuten "Mediterranean Handball Cup" eskubaloitxapelketan parte hartzeko bidaia antolatzen hasia zen Usurbil K.E. Deialdia infantil mailatik jubentil mailara arteko eskubaloitxokalariei zuzendua zegoen. Baina herriko eskubaloitaldean bilgunetik jakinarazi dutenez, "bertako arduradunek adierazi digute ez dagoela talde guztientzat parte hartzeko tokirik".

Valentziara ezingo dute joan, beraz, baina bidaia alternatiboa proposatu dute dagoeneko. "Horren ordezt, Calellara (Bartzelona) joatea erabaki dugu", ohartarazi du Usurbil K.E.-k. Honenbestez, Valentziako bidaiara joateko iragan ostiralera arte zabaldu zuten inskripzio epean izena eman zutenei zuzenduta antolatzaileek berri eman dutenez,



"Prezioa eta txapelketaren egunak berdinak izango dira".

"zuen baieztok aurreikuspenarekin kontaktzen dugu. Horrela ez bada, Usurbil Kirol Elkarteko arduradunekin harremanetan jartzea gustatuko litzai-guke; baita bestelako arazorik egonez gero ere".

Antolakuntzak zehaztu dutenez, "prezioa eta txapelketaren egunak berdinak izango dira. Hau da, apirilak 6-9 artean jokatu da". Pasa den astean berri eman zuten moduan,

bidaia autobusez egingo da. "Gastuaren barne sartuko lirarteke honako hauek: bidaiaren joan-etorria autobusean, hotela 3 dietak barne, txapelketako inskripzioa, erantzunkizun zibileko eta kirol aseguru".

Bidaian izena eman dutenentzat argibide gehiago ematekoa da Usurbil K.E., ostegun honetarako, martxoaren 2rako, 18:30ean Potxoenean deitu duen guraso bileran.

"Ni ez naiz Mikel Laboa" liburua hizpide Sutegin

Komiki honen sortze lanean parte hartu du Joseba Larratxek eta hainbat azalpen emango ditu "hitzez eta irudiz" ostiral honetan arratsaldeko 19:00etan Sutegin. "Joseba Larratxe Josevisky marrazkilaria gurean izango da komikia nola gauzatu zen kontatzeko: sortze prozesua, bozetoak... eta sorpresatxoaren bat. Ez galdu aukera!!!", udal liburutegitik aditzera eman dutenez.



Joseba Larratxe Sutegin izango da ostiral honetan, 19:00etan. Argazkia: Bidasoko Hitza.

Etxegarai-Arrillaga bikotearen garaipen berri bat

Binakako Master Laboral Kutxa txapelketan aurrera egin ahala, kirol maila ere gora egiten ari da nabarmen. Aurreko larunbatean hiru partida jokatu ziren Seguran eta lehia handia izan zen. Inork ez du txapelketatik kanpo geratu nahi.

Elite mailako pilota mistoko koadroan esaterako, Etxegarai-Arrillaga bikoteak garaipen ikusgarria eskuratu zuen Seguran, lehia oso bizi baten ondoren Arrizabalaga-Capellani 22-19 irabazita. Duela bi aste Garai-Garminderen aurka 22-16 nagusitu ziren. Aurrera egiteko aukera asko dituzte hortaz.



Miriam Arrillaga fin ari da jokatzeko.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia, terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonaldirako litza-teke. 636711514

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683 548 749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Garaje itxia salgai herri sarre-ran. 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarre-rako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Lanaldi erdian (goizetan) etxeko lanak egiten aritzeko pertsona baten bila nabil Zubietan 695783202.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu bategin? Animatu eta deitu hona:

680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak eman-go dizkion pertsona baten bila gabilta. 608201745

Klase partikularrak emateko prest dauden zerrrenda osatzen ari da Udarregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Zerbitzariak behar dira Aginaga sagardotegian, urte osoan zehar astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega ja-

tetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsalde zaurak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil.

688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lane-tan zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

BESTELAKOAK

Erlajo digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arrazain bideko espaloian. Erlajua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdutuen Udaltzaingoa galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Paretetik bueltan jantzita genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaitena dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzita eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu: 687 779 669.

Futbol partidak

Harane futbol zelaian:

Martxoak 4, larunbata

■ 9:00 Infantil neskak:
-Usurbil FT A-Urnieta KE

-Usurbil FT B
-Santo Tomas Lizeoa A

■ 10:15 Kadete mutilak:
Usurbil FT B-Ostadar C
■ 12:00 Kadete neskak:
Usurbil FT-Aizkorri FT
■ 15:30 Erregionalak:
Usurbil FT B-Asoleus CF
■ 17:45 Preferente
neskak:
Usurbil FT-Hondarribia

Kanpoko partidak

■ 15:45 Jubenilak,
Donostia, Felix Garin:
-Arrupe Chaminade D
-Usurbil FT A

Futbol partidak

Harane futbol zelaian:

Martxoak 5, igandea

■ 10:00 Kadete
preferenteak:
-Usurbil FT
-Zarautz KE B
■ 12:00 Jubenilak:
-Usurbil FT B
-Sporting de Herrera B

Kanpoko partidak

■ 10:15 Infantil mutilak,
Donostiako Berion:
-Antigua Luberrri KE
-Usurbil FT
■ 16:00 Preferente
mutilak, Donostia (Puio):
-Axular KKE
-Usurbil FT

Eskubaloia

Oiardo kiroldegian:

Martxoak 4, ostirala

■ Jubenil neskak,
16:00:
-Urbil-Usurbil KE.
-Hendaia.

■ Kadete neskak,
17:45:
-Usurbil KE.
Orio Eskubaloia.
■ Senior mutilak,
19:30:
-Usurbil KE.
-Ereintza Eskubaloia.

Heriotzak

Agueda

Esnaola

Armendariz

Otsailaren 24an
hil zen, 92 urterekin




Zorionak Laia!

Martxoaren 1ean zortzi urte!!
Egun zoragarria opa dizugu!!
Muxu erraldoi bat zuretzat!!



HANDITZEN, HANDITZEN,
ARI NAIZ HANDITZEN...
7 URTE KATTALIN,
ZORIONAK ETA MUXU PILA!



Dagoeneko 5 urte, Inhar!!

Jarraitu saltoka eta korrika,
irrifarre bat ahoan.
Maite zaitugu txiki!



Zorionak Nahia! Eskerrik
asko 12 urte hauengatik!
Segi horrela gozatzen!

Goardiako farmaziak

Osteguna 02 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 03 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 04 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 05 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astlehena 06 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 07 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 08 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Osteguna 09 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 10 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda martxoa

03 ostirala

■ 'Ni ez naiz Mikel Laboa' komikiaren inguruko solasaldia Joseba Larratxerekin. 19:00etan Sutegi udal liburutegian.

04 larunbata

■ Emakumeen Etxeari lotutako asanblada irekia eta bertso-bazkaria. 12:00 Asanblada irekia Potxoenean. Izen-ematea: 943 377 110/ parekidetasuna1@usurbil.eus. Segidan, bertso-bazkaria Artzabalen. Antolatzailea: Usurbilgo Udala.


05 igandea

■ Haurrentzako zinea: "Yuku eta Himalaiako lorea". 17:00etan Sutegin.
■ Zumetaren muralaren kontserbazio-lanak ezagutzeko bisita. 11:30ean muralaren aurrean. Izen-ematea: doan, 650usurbilbizi.eus atarian.

'Yuku eta Himalaiako lorea' filma eskainiko dute igandean Sutegin

Arratsaldeko 17:00etan hasiko da 'Yuku eta Himalaiako lorea' filmaren proiektzioa. Negu honetako zine zikloko azkena izango da hauxe. Sarrerak aurrez eskura daitezke 3 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman.

■ Sinopsia: "Munduko mendi garaienetan bizi da eguzki-argi garbienaz elikatzen den landarea... Himalaiako lorea. Yuku sagutxo lore horren bila abiatuko da, bere amonari eskaintzeko. Baina bidean, Yukuk oztopo ugari gaingitu beharko ditu. Bidaian zehar ordea, Yukuk lagun asko egingo ditu bere kantuei esker. Eurak dira bizitzaren abenturan arrakasta izateko euskarrik onenak".



Neguko zikloko azken proiektzioa izango da.

■ Iraupena: 65 minutu.
■ Sarrerak: 3 euro. Aurretik, usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.
■ Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Zior-tza Gazte Elkartea.

Emakumeen Etxean asanblada irekia

Martxoak 4 larunbata, eguerdiko 12:00etan Potxoenean. Talde sustatzailerak egindako lanketaren berri emango da eta ondoren bertso bazkaria izango da Artzabalen. Bertsolariak: Saioa Alkaiza, Maialen Lujanbio eta Jone Uria (bertso-bazkarirako txartelak dagoeneko agortuta daude).

Zumetaren muralaren kontserbazio-lanak

Zumetaren muralaren inguruko kontserbazio-lanak martxan dira. Artyco enpresa ari da zeregin horretan. Igande honetan, lan honi buruzko azalpenak emango dituzte, 11:30etik aurrera, Zumetaren muralaren aurrean. Usoa Zumetak eta Azucena Priorrek gidatuko dute bisita. Izen-ematea: doan, 650usurbilbizi.eus atarian.

Datozenak

Erakusketa Artzabalen

Victoria Chernenko margolari ukrainarraren lanak topatuko dituzue Artzabalgo paretetan eskegita. Errusiaren inbasioa hasi eta gutxira etorri zen Euskal Herrira. Arte ederretako irakaslea, akuarela, oleoa, akrilikoa eta beste teknika batzuk baliatzen ditu. Hilaren amaieran amaituko da erakusketa.

Nerea Zinkunegiren erakusketa Txokoargin

Nerea Zinkunegik erakusketa bat zabalduko du datorren astean Txokoaldeko Txokoargi elkartearen.

■ Martxoak 10-31 (astelehenetik ostiralera, 10:00-12:00/17:00-19:00, astearte arratsaldea izan ezik), Txokoargin.

Badator Laburbira

Gaur egungo zinemagintzaren lagin aparta izaki, Laburbirak gure sortzaileen lanez gozatzeko aukera eman go die ikusleei. Edukiz zein estiloz, oparoa omen da aurtengo uzta. Ikusi ahalko diren filmak: Muskil, Olatuen isiltasuna, Irrits, Erlojupekoa, Hitzak, Asko falta da?, Koadro goriari heldu.

Martxoak 19 igandea

■ Laburbira Sutegin, 18:30ean.
■ Antolatzailea: NOAUA!

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI!
650 31 31 91 USURBIL

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Usurbilen,
zure auto-tailerra

Etortu Ramon

Atallu
AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
DOHAIZNIK IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua

EuroTailer

Atallu Industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

Turkia

IRTEERA 2023ko maiatza

Rhin itsasbidaia

IRTEERA 2023ko ekaina

NOAOA
BIDAIAK

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

Gerentzia-postuetan emakumeak %6a bakarrik izatea ez da prestakuntza edo lidergo faltagatik. Erakundeetan gizonezkoen pribilegioak eta rola betikotzen direlako baizik.

Martxoak 8,
Emakumeen Nazioarteko Eguna

EMAKUMEAK GORA

emakumeakgora.eus

#emakumeakgora

araba álava foru aldundia diputación foral

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUDEL

EMAKUNDE

URDAIRA

Sagardotegia

AGINAGA
943 37 26 91

astelehenak itxita



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 7ra
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95

SAGARDOTEGIA aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita



Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenena

